



OIARTZUNGO  
UDALA

# **2022 URTEKO AURREKONTU OROKORRA**

MEMORIA

## 1 Sarrera

Txosten honen helburua 2022 urteko aurrekontuen azalpena egitea da. Lehenik eta behin aurrekontuak osatzeko prozedura azaltzen da. Ondoren, aurrekontuen datu orokorrak ematen dira, diru-sarrera eta gastuak kapituluka aztertuz. Azkenik, sailez sail 2022rako lan ildo nagusienak azaltzen dira.

2022 urteari dagokionean, COVID19a gainditzen hasteko urtea dela aurreikusten da. Nahiz eta krisi honen eragina herritarren ongizatean eta lan esparruan adibidez epe luzean nabarituko diren, adierazle ekonomikoen ikuspuntutik, egoera hobera doala esan daiteke. Oiartzungo Udalak inoizko aurrekonturik handiena izango du, 18.554.277 €-koa hain zuzen ere.

Aurrekontu horrekin, gobernu taldeak ohikoak diren helburuak lortu nahi ditu: Udalak herritarrei zor dizkion zerbitzuak eta ongizatea bermatzea eta herritar eta eragileen dinamizazioa bultzatzea. Gainera, bizi dugun krisi egoerak bultzatuta, etorkizuneko erronkei aurre egiteko egitasmoak martxan jartzeko eta gauzatzeko aurrekontuak diseinatu dira. Erronka estrategiko horiekin lotuta, honako lan ildoak aurreikusi dira:

- **Energia trantsizioa.** Energia kontsumoa gutxitu, efizientzia handitu eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzen ari da Udala azken urteetan. Hala ere, 2022ko aurrekontuetan baliabide gehiago jarri dira. Udalaren energia plana egin eta gauzatzeko eta energia kontsumoa gutxitzeko neurriak hartuko dira. Besteak beste, argiteria publikoa berritzeko ahalegin berezia egiten jarraitzea eta energia berriztagarrien inguruko apustua egingo da. Mugikortasunaren inguruan ere lanean jarraitzeko baliabideak ere egongo dira.
- **Osasuna eta ongizatea.** Lan ildo honen baitan, erronka nagusia bazterkeria arriskuan dauden pertsonen eta adinekoen zaintza izango dela ikusten da. Hori dela eta, gai hauen inguruko diagnostikoa egiteko baliabideak jarriko dira. Gainera, Mendiburu 14ko eraikinaren lanak aurrera doazen heinean, gero eta hurbilago dago Jubilatuen egoitza berria martxan ikusteko unea. Egoitza horren kudeaketaren inguru parte hartzeko prozesua ere gauzatu da 2022an.
- **Administrazioen digitalizazioa eta modernizazioa.** Administrazioaren digitalizazioan jarraitzeko eta administrazio elektronikoa herritarrengana hurbiltzeko lanekin jarraituko da. Honi lotuta, informatika sailaren aurrekontua igo da. Digitalizazio honek, udaleko beste zerbitzuen hobekuntza ekarriko du, esate baterako, ur eta energia sarearen kontrola egiteko erraztasunak emango ditu. Gainera, digitalizazioak dakartzan arriskuetatik babesteko, zibersegurtasuna hobetzeko neurriak hartuko dira.

Nahiz eta hurrengo hamarkadako erronka nagusiak lantzeko baliabideak bideratu, dagoeneko martxan dauden egitasmoak mantenduko dira:

- Mendiburu 14ko eraikinaren lanak bukatu eta bertako ekipamendua osatzeko aurrekontua egongo da. Bestalde, kultura eragileekin Oiartzungo kultura proiektuaren inguruko parte hartze prozesuarekin aurrera jarraituko da.
- Ondarearen lanketarekin jarraituko da, Arizmendieneako proiektua garatzen jarraituz eta herriko ondarea herritarren eskura jartzeko egitasmoak gauzatu.
- Lehen sektorea laguntzeko Lurbizi egitasmoak martxan jarraituko du eta gainera, lehen sektoreari laguntzeko dirulaguntzen deialdia aterako da.

## 2 Prozedura

2022ko aurrekontu proiektuaren prozesua 2021eko ekainean hasi zen, berau egiteko egutegia finkatuz. Egutegi hori finkatzerako garaian kontuan hartu dira, besteak beste, legediak eskatzen dituen pausoak, auzotarrekin egindako bileren egutegia, udal korporazioko beste talde politikoaren parte hartzea eta Aldundiko funtsa zehazteko dagoen egutegia. Egutegi honen helburu nagusia partaide guztiei proposamenak egiteko aukera eman eta 2022rako lan ildo nagusiak ezartzea da.

2021eko irailean sailetatik lehenengo proposamenak jaso ziren 2022an izango diren beharrak aztertuz. Horrekin eta diru-sarreraren lehenengo estimazio batekin lehenengo zirriborroa osatu da.

Urrian zehar herritarrei eta oposizioko alderdiari ekarpenak egiteko aukera eman zaie. Urtero bezala aurrekontuen lehenengo zirriborroa auzo guztietan aurkeztu da. Horrez gain, aurrekontuen inguruko eskaerak jaso dira. Gehienak auzoetako lanen inguruan txertatu beharrekoak, baita herriko zerbitzuen ingurukoak ere. Guztira 109 herritar bertaratu dira bilera horietara. Esan bezala, oposizioko alderdiari ekarpenak egiteko aukera eman zaio Ogasun Batzordearen bidez.

Azaroan, proposamen guztiak kontuan hartuta, sailetatik bigarren doiketa bat egin zaio aurrekontuari. Horrez gain, Foru Funtsaren 2022ko aurreikuspena ikusirik diru-sarreraren doiketa egin da. Azaro hasieran behin-betiko zirriborroa eduki arren, Batzordeko onarpena azaroa bukaerara atzeratzea erabaki da, Gainbalioen zergaren inguruko zalantzak argitzeko asmoz.

Azaroko azken batzordean behin betiko aurrekontu proposamena aurkeztu da eta Osoko Bilkuran onartu dira.

Prozedura hau jarraitu ondoren jasotako emaitza da 2022eko aurrekontua.

## 3 Aurrekontuaren deskribapena. Datu orokorrak.

2021arekin alderatuta, 2022ko aurrekontuan % 3,41ko igoera aurreikusten da. Igoera horren arrazoi nagusiak bi dira: Foru Funtsaren igoera aurreikuspena (+826,483.00 €) eta Eusko Jaurlaritzaren Berpiztu planarekin Gurutzeko bidegorria egiteko jasoko den 630.000 €-ko dirulaguntza.

	Aurrekontuaren bilakaera			
	2022	2021	2020	2019
Gastuak guztira	18,554,277.00 €	17.921.159,00 €	17.589.189,36 €	17.272.680,88 €
Sarrerak guztira	18,554,277.00 €	17.921.159,00 €	17.589.189,36 €	17.272.680,88 €
Aurrekontu aldaketa aurreko urtearekiko [%]	3,41	1,89	1,83	3,40
Inbertsioak [%]	13,48	15,12	13,89	14,31
Dirulaguntzak [%]	18,49	18,20	18,58	18,73

## 4 Diru-sarrerak

Hurrengo taulan, diru-sarreraren laburpena ikus daiteke kapituluka.

SARRERAK KAPITULUKA	2022	Aurrekontuaren zatia [%]	2021	Aldaketa 21-22 [%]
1. Zuzeneko zergak	6.003.500,00 €	32,36	6.102.500,00 €	-1,62
2. Zeharkako zergak	300.000,00 €	1,62	300.000,00 €	0
3. Tasak	3.071.960,00 €	16,56	3.159.160,00 €	-2,76
4. Transferentzia arruntak	8.486.616,00 €	45,74	7.797.333,00 €	8,84
5. Ondare sarrerak	62.200,00 €	0,34	62.165,00 €	0,06
6. Inbertsio errealak besteren.	0,00 €	0	0,00 €	0
7. Kapital transferentziak	630.000,00 €	3,40	0,00 €	--
8. Finantza aktiboak	1,00 €	0	1,00 €	0
9. Finantza pasiboak	0,00 €	0	500.000,00 €	--
Guztira	<b>18.554.277,00 €</b>		<b>17.921.159,00 €</b>	

Laburbilduz, honakoak dira aldaketa nagusiak diru-sarreratan:

- Zuzeneko zergatan 2021eko erroldatan izandako aldaketak txertatu dira. Orokorrean, zerga hauetan % 1,01eko jaitsiera aurreikusten da:
  - 50.000 € gehiago Ondasun Higiezin Zergan.
  - 150.000 € gutxiago Hirilur Balio Gehikuntzan. 2021ean eragiketa puntual bereziak izan ziren eta 2022an ohiko balioetara bueltatzea espero da (300.000 €). Dena den, zerga honen araudian aldaketak izatea espero da, epaitegiek bertan behera utzi baitute zerga hau kalkulatzeko modua. Foru Aldundia kalkulatzeko beste formula bat erabakitzen ari da eta 2022an diru-sarrerak mantendu ahal izango direla aurreikusten da.
- Transferentzia arruntetan % 8,83ko igoera aurreikusten da. 2021ean Foru Funtsean izan zuen %4-ko jaitsiera berreskuratuko da eta beste % 4 igotzea aurreikusten da. Ondorioz, 2022 diru iturri honetatik 826,483.00 € jasoko dira. Hemen kontuan hartu behar da kopuruak aurreikuspenak direla, 2021eko ekarpenaren behin betiko kopurua 2022ko otsailean jasoko baita.
- Kapital transferentzietan, 630.000e-ko dirulaguntza jasoko da Eusko Jaurlaritzaren Berpiztu planetik Gurutzeko bidegorria egiteko.

## 5 Gastuak

Hurrengo taulan gastuen banaketa ikus daiteke kapituluka.

GASTUAK KAPITULUKA	2022	Aurrekontuaren zatia [%]	2021	Aldaketa 21-22 [%]
1. Pertsonal gastuak	6.041.137,92 €	32,56	6.075.172,65 €	-0,56
2. Gastuak ondasun arrunt.	6.371.238,92 €	34,34	5.577.737,84 €	14,23
3. Finantza gastuak	33.600,00 €	0,18	16.797,79 €	100,03
4. Transferentzia arruntak	3.429.998,78 €	18,49	3.265.307,64 €	5,17
6. Inbertsio errealak	2.501.712,22 €	13,48	2.708.842,33 €	-7,78
7. Kapital transferentziak	116.588,16 €	0,63	41.659,75 €	179,86
8. Finantza pasiboak	1,00 €	0,00	1	0,00
9. Finantza pasiboak	60.000,00 €	0,32	235.640,00 €	-74,54

Guztira | 18.554.277,00 €

17.921.159,00 €

## 5.1 Pertsonal gastuak

Udalaren pertsonal gastuetan % 0,56ko igoera aurreikusten da. Igoera honetan zerbitzu ezberdinetan izan diren aldaketak eta 2022rako langileen soldata igoera kontuan hartu dira, honen inguruko arauak diotenaren zain, % 2,5ekoa izango dela aurreikusi delarik.

## 5.2 Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak

Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak % 14 igoko direla aurreikusi da. Zerbitzu berrien gastuen doiketa eta urteko gastu arruntaren doiketa egin da aurreko urtetako bilakaera kontuan hartuz.

COVID19aren eraginez, garbiketa beharrei aurre egiteko 229.000 €-ko kopuru gehigarria mantendu da aurrekontuan. Honekin, protokoloek udal eraikin ezberdinetan eskatzen dituzten garbiketak egingo dira. Dena den, 2022an zerbitzu gehigarriak pixkanaka gutxitzen joango direla eta ez dela kopuru guztia erabiliko uste da.

Gastuen atal honen igoeraren arrazoi nagusia bi zerbitzuren kontratu berriak dira. Batetik, Elorsoro Kiroldagiko esleipen berria egin da eta bertan eskainiko diren zerbitzuen kostea 160.000 € igoko da. Era berean, lorategi eta gunen berdeen mantenurako kontratua ere berritu da, zerbitzuak indartuz. Horrela, kontratu honen kostea 53.872 € igoko da.

Bi igoera hauez gain, Udalak etorkizunari begira dituen erronken alorretan egitasmoak martxan jarri edo indartzeko gastu aurreikuspena egin da:

- Energia trantsizioaren baitan, 100.000 €-ko diru partida gorde da Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa 4/2019 legeak ezartzen dituen ekintzak gauzatzeko. Gainera, argiteria publikoaren mantenurako 10.000 € gehiago jarriko dira, 50.000 €-ra iritsiz.
- Administrazioaren modernizazio eta digitalizazioarekin jarraitzeko, 220.000 €-ko partida (+ 52.000 €) sartu da udal sarearen azpiegitura indartu, herritarrei sarean ematen zaizkien zerbitzuak hobetu eta zibersegurtasuna handitzeko.
- Ongizate alorrean, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen eta zaintzaren inguruko lanak egiteko partidak gorde dira. Zehazki, Mendiburu 14 eraikin berriaren egongo den jubilatuen egoitzaren kudeaketari buru parte hartze prozesua martxan jartzeko 18.000 € egongo dira. Horrez gain, 40.000 €-ko partida gorde da zaintzaren eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen inguruko diagnostikoa egiteko.

## 5.3 Finantza gastuak

Finantza gastuei dagokionean, azkeneko urtetako bilakaerari jarraituz, ordaindu beharreko interesak gutxitzen doaz. 2021ean 16.797 € ziren eta 2022an 2.600 € izango dira. Hala ere, finantza erakundeek jarritako komisio berriak direla eta, 30.000 €-ko gastu finantzarioen partida jarri behar izan da. Ondorioz finantza gastuak 33.600 €-takoak izango dira guztira.

## 5.4 Transferentzia arruntak

Transferentzia arrunten kapitulua aurrekontu osoaren % 18.49 izango da 2022an. Aurreko urtearekin alderatuz, 168.000 € gehiago bideratuko dira herriko elkarte, norbanako eta erakundeak diruz laguntzera. Ondorengo taulan sailez sail egin den aurreikuspena ikus daiteke:

ARLOA	DIRULAGUNTZAK
EUSKARA	342.590 €
GAZTERIA	3.000 €
HEZKUNTZA	1.172.021 €
HIRIGINTZA	24.598 €
IDAZKARITZA	164.600 €
KIROLA	138.094 €
KULTURA	485.621 €
MENDIAK ETA INGURUMENA	212.181 €
OBRA ETA ZERBITZUAK	135.000 €
ONGIZATE	747.291 €
BERDINTASUNA	5.000 €
GUZTIRA	3.429.998 €

6. atalean sailez-sail egiten den laburpenean 2022rako dirulaguntzetan nabarmendu beharrekoak ikus daitezke.

## 5.5 Inbertsio errealak

Inbertsio errealen kapituluan 2.501.712,22 €-ko gastua aurreikusi da. 2021 urtearekin alderatuz, inbertsio errealak egiteko ahalmena % 7,78 murriztuko da. Jarraian inbertsio nagusiak ikus daitezke:

Inbertsio errealak	
GURUTZEKO BIDEGORRIA	630.000,00
ALTZIBARKO URBANIZAZIOA	600.000,00
RAFAEL PIKABEA	200.000,00
ALTZIBARKO FRONTOIA	172.799,05
MENDIBURUA 14 EKIPAMENDUA	100.071,59
IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA	100.000,00
KIROLDEGIKO INBERTSIOAK	100.000,00
ARANEDER ZUBIA	100.000,00
UDAL ERAIKINAK	80.000,00
ARRIETA EGUZKI ENERGIA INSTALAZIOA	80.000,00
AUZOETAKO LANAK	50.000,00
PROIEKTUAK	50.000,00
POLIGONOEN BIZIBERRITZEA	50.000,00
HERRIBIDEAK KONPONDU	50.000,00
KONTADORE ALDAKETAK	25.000,00
LANGILEAREN ATARIA	20.741,58
ASFALTATZE LANAK	20.000,00
ZUNTZAREN ZABALPENA	18.000,00
EKIPAMENDU INFORMATIKOA	15.000,00

Aurreko urtetan partida nagusia Mendiburu 14ko eraikinaren lanak ordaintzeko izan da. Hori ordaintzeko diru nahikoa gorde delarik, eraikin horren ekipamendua ordaintzeko diru partida bat jarri da. Beste inbertsioei dagokienean, Gurutzeko bidegorria eta Altzibarko urbanizazioa izango dira nagusienak. Gainera, Altzibarko frontoia eraikitzeko, Rafael Pikabea etorbidea berritzeko eta Araneder zubia berreraikitzeko partidak ere izango dira.

Partida nagusi hauez gai, urteroko inbertsioak mantentzen dira: auzoetako lanak egiteko, poligonoen biziberritzerako eta herri-bideak konpontzeko.

Sarreran aipatu diren erronka estrategikoei aurre egin ahal izateko, inbertsioen atalean ere partida berriak sartu edo zeudenak indartu dira. Batik bat, energia iraunkortasunarekin eta administrazioen digitalizazioarekin loturikoak. Iraunkortasunarekin lotuta, herriko argiteria azpiegitura hobetzeko 100.000 € aurreikusi dira, aurreko urtean baino 70.000 € gehiago. Gainera, inbertsio berezi bat egongo da Arrietako ur biltegian eguzki energia instalazio bat martxan jartzeko. Administrazioaren digitalizazioaren alorrean, langileen ataria martxan jartzeko, udal zuntz sarea hobetzeko eta azpiegitura informatikoa berritzeko dirua gorde da.

Inbertsioen alorrean, gobernu taldeak 2022ko ildo nagusiak aurreikusi ditu. Inbertsio hauei dagozkien proiektu eta txosten teknikoak zehazten diren heinean, aurrekontuan beharrezko aldaketak egingo dira, kreditu aldaketen bidez edo 2021eko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatuta.

## **5.6 Kapital transferentziak**

Kapital transferentzien kapituluan Haurtzaro Ikastolari inbertsioetarako egiten zaion ohiko ekarpena (30.000 €) dago.

Horrez gain, Foru Aldundiarekin Lanbarren poligonoa hobetzeko hitzarmenaren baitan, 74.928,41 €-ko ekarpena jarri da aurrekontuan.

## **5.7 Finantza pasiboak**

Finantza pasiboen kapituluan, udalak gaur egun dituen maileguren amortizatorako ordainketak aurreikusi dira. Zehazki, 2022an 60.000 € itzuli beharko dira, aurreko urtean baino % 74,54 gutxiago.

# **6 Laburpena sailka**

## **6.1 Zerbitzu orokorrak**

Zerbitzu orokorrentzat aurrekontua 2.173.634,03 €-koa izango da, %37,51 gutxituko delarik. Jaitsieraren arrazoi nagusia Mendiburu 14ko eraikinaren partida kentzea da.

Zerbitzu orokorren sailean, udaleko administrazio orokorraren gastuak egoteaz gain, Alkatetzatik bideratutako dirulaguntzak ere sartzen dira. 2022rako dirulaguntza horietan daude:

- Itturri Dendari Elkarteari 20.000 €-ko dirulaguntza, urteko egitasmoak gauzatzeko.

- 20.000 €-ko dirulaguntza Aranzadi Elkarteari, 1936tik hasi eta gaur egun arte izan diren Giza eskubideen urraketak ikertzeko.
- 40.000 €-ko dirulaguntzak Udalbiltzari, besteak beste kultur egitasmoak sustatzeko Geuretik Sortuak ekimena gauzatzeko.

Azkenik, Zerbitzu Orokorren baitan udaleko Informatika Sailaren funtzionamendu gastuak ere kontuan hartzen dira. 379.652,34 €-ko kostua izango du sail honek guztira. Udal administrazioaren digitalizazio eta modernizazioaren bidean, % 15 igoko dira sail honi bideratutako baliabide. Soldatez gain, informatikako mantenu orokorra (8.000 €), lizentzia eta garapen informatikoak (220.000 €, +52.000 €) eta udal zuntz sarearen zabalpena (18.000 €, +11.000 €) egingo dira. Udal zuntzaren zabalpenaren apustuak, eraginkortasunaren bidean udalaren ur sarearen eta sare elektrikoaren kontrola hobetzeko balio du.

## **6.2 Ekonomia, Ogasuna eta Ondarea**

Sail honen urteko aurrekontua 558.039,09 €-koa izango da, aurreko urtearekiko %19,15 jaitsiko delarik. Aurretik aipatu diren maileguen itzulketa eta interesetan jaitsiera izango da.

## **6.3 Hirigintza**

Hirigintzari dagokionean, 2022an 1.371.800 €-ko aurrekontua izango du.

Etxe hutsen alokairua sustatzeko udalak martxan duen programarako 10.000,00 € bideratuko dira, herrian dauden etxe hutsak Etxebiderekkin eta etxe jabeekin elkarlanean Oiartzuarren eskura baldintza duinetan bideratzeko.

Hirigintza sailaren baitan honako inbertsioak aurreikusten dira: Altzibarko urbanizaziorako 600.000 €, auzoetako lanetarako 50.000 € eta poligonoak biziberritzeko 50.000 €.

Azkenik, 50.000 € gordeko dira proiektu teknikoak garatzeko.

## **6.4 Babes zibila eta herritarren segurtasuna**

Sail honek 2022an 1.188.807,29 €-ko aurrekontua izango du, aurreko urtean baino -% 0.25.

## **6.5 Obra eta zerbitzu publikoak**

2022an zerbitzu publikoak mantentzeko 4.545.028,52 € aurreikusten dira. 2021ean baino %14,20 gehiago. Azpimarratu behar da, 2022rako inbertsio nagusiak obra eta zerbitzu publikoen sailetik egingo direla, ondorioz aurrekontua igotzen da.

Programaz programa hauek izango dira gastu nagusiak:

- Ur zerbitzua:
  - o Orokorrean, zerbitzu 946.301,25 €-ko aurrekontua izango du.
  - o Udalak edateko uraren sare propioa duenez, ohiko mantenurako 36.500 € bideratuko dira.
  - o Kontadore parkea berritzera 25.000 € bideratuko dira.



- Añarbeko Mankomunitatearen ekarpenak doitu dira 2022rako onartutako prezioen arabera, 197.000 € estolderia urak jasotzeagatik eta 172.000 € hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendurako. Bi kontzeptu hauetan Añarbek tarifen igoera proposatu du, ondorioz gastua 59.000 € igoko da.
- Hondakinen bilketa eta kudeaketa:
  - Zerbitzu hauen kostua 2022an 1.721.879,25 €-koa izango da.
  - Hondakinen bilketa kontratuaren partida 710.520 €-koa izango da 2022ean.
  - Errefusaren eta organikoaren tratamenduak egiteko 168.000 € eta 131.000 €-ko partidak gorde dira hurrenez hurren. Aurreko urteko partida berdina mantendu dira.
- Kale garbiketa:
  - Kontratuaren partida 530.500 €-koa izango da, 2021eko berdina.
- Parke eta lorategien mantenua
  - Parke eta lorategien mantenurako 224.075,71 € erabiliko dira. Kontratua berritu da eta zerbitzua indartuko da.
- Argiteria sarearen eta sare elektrikoaren kudeaketa eta mantenua:
  - Argiteria publikoaren kontsumo gasturako 135.000 € gorde dira.
  - Argiteria sarea mantentzeko 50.000 €-ko partida izango da, aurreko urtean baino 10.000 € gehiago.
  - Argiteria sarearen egin beharreko berrikuntza lan bereziak egiteko beste 100.000 € egongo dira. Hemen 70.000 €-ko igoera aurreikusi da.
  - Ikastetxeetan egiten den argindar aurrezpena saritzeko, aurrezpen horren erdia ikastetxeei bueltatuko zaie dirulaguntza bidez. Guztira, 6000 € gorde dira proiektu hau diruz laguntzeko.
  - 80.000 €-ko inbertsio berezia Arrietako ur biltegian eguzki energia instalazioa jartzeko.

Aipatu behar da, trantsizio energetikoaren bidean, udalak 2022ko aurrekontuetan trantsizio hori gauzatu ahal izateko partidak indartuko dituela.

## 6.6 Hezkuntza

Herriko ikastetxeen ekintzak laguntzeko 1.609.646,40 € izango dira 2022 urtean. Bertan aurreikusten dira Elizalde Herri Eskolako ohiko mantenuaren gastua (99.865 €), Partzuergoaren ekarpena (742.000 €) eta Hautzaro Ikastolari dirulaguntza (417.021 €).

Gainera, 13.000 € gordeko dira ikastetxeen eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko.

## 6.7 Euskara

Euskara Sailak 505.515 €-ko aurrekontua izango du 2022an.

Euskara ikasteko beken partida handitzen da % 8, 51.000 € arte. Gainera, kanpotik etorritako aurren euskara klaseak indartzeko 4000 € gehiago jarriko dira.

Urteko egitasmoak gauzatzeko partidak jarri dira:

- Oiartzun Irratiaren dirulaguntza mantentzen da, bertako jarduera dinamizatu eta komunikabide honen irismena mantentzeko. Guztira 54.700 € jasoko dira.
- Ttur-Ttur elkartearen dirulaguntza, 109.400,00 € izango dira 2022an.
- A.E.Kren dirulaguntza 31.100 € izango dira.
- Lan mundua euskalduntzeko egitasmoek 21.800 €-ko aurrekontua izango dute.

## 6.8 Kultura

Kultura Sailaren aurrekontua 951.492,42 €-koa izango da.

Sail honetan aurrekontua % 2,89 igoko da 2022an.

Berrikuntza nagusiak dirulaguntzen atalean izango dira, non:

- Gazte sortzaileen egitasmoak laguntzeko 20.000 € gordeko diren.
- Oiartzungo Antzerkigintza lanean ari den elkarteari 16.000 € bideratuko zaizkion. 21-22 urtean estreinakoz antzerki eskolaren kudeaketa herriko elkarte batek egingo du. Ondorioz, udalaren gastu zuzena izan beharrean elkarteak kudeatuko du programa.
- Hitzen Lihoa egitasmoarentzat 10.000 € gorde dira.
- Kultur sorkuntzarako proiektuak laguntzeko 6.000 €-ko deialdia aterako da.

## 6.9 Mendiak, ingurumena eta mugikortasuna

Sail honen aurrekontua 1.553.896,68 €-koa izango da 2022an. 2021arekiko 838.000 €-ko igoera izango da, batez ere Gurutzeko Bidegorriaren inbertsioa (630.000 €) eta jasangarritasun energetikoari lotuta ekintzak (100.000 €) hemendik bideratuko direlako.

Ohiko partidak mantentzen dira:

- Behemendiren bitartez egiten diren ekintzetarako 40.000 €.
- Aldundiarekin elkarlanean, mendi garbiketarako Goi Larre planean parte hartzeko 30.000 €.
- Tokiko Agenda 21 sustatzeko 10.200 €.
- Mugikortasuna
  - Xorrola zerbitzua: 125.000 €. Honez gain, zerbitzu honek erabiltzen duen Mugi sisteman berrikuntzak egiteko 25.000 €-ko ekarpen gehigarria egingo da.
  - Taxi bus zerbitzua: 55.000 €.

Inbertsioen atalean herri bideak mantentzeko ohiko partida jarri da, 50.000 €-koa.

Dirulaguntzen alorrean, bi partida berri sortu dira. Batetik, Zubieta Lantzen egitasmoari 800 € bideratuko zaizkio Zubietako Erraustegiaren eraginaren jarraipena egin dezan. Lurbizi egitasmoaren baitan, dirulaguntza lerro berri bat jarriko da martxan (20.000 €) lehen sektoreko ustiategiak laguntzeko.

## 6.10 Gizarte politika

Gizarte Ongizate sailaren aurrekontua 2022rako 2.316.710,25 €-koa izango da.

Politika soziala mantentzeko dagokionez, herrian dauden behar ezberdinei erantzuten jarraitzeko aurrekontuak diseinatu dira. 2022an hauek izango dira lerro nagusienak:

1. **Lehen mailako arreta** ematera 1.439.857,98 € bideratuko dira, honako lerro zehatzekin:
  - a. Arazo ekonomiko eta sozial larriak pairatzen ari diren oiartzuar familiei eta herritarrei babesa emateko dirulaguntzak. Horretarako guztira 235.000 € egongo dira (familiei laguntzatan, haurrei laguntzatan eta larrialdiko laguntzatan).
  - b. Bidez bide eta Bide Lagun zerbitzuetarako 54.400 € bideratuko dira.
  - c. Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzua martxan jarri zen 2021ean. Gizarte Ongizate sailaren zerbitzu gehigarria izango da eta 96.000 € bideratuko dira.
  - d. Eskualdean bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzari bideratutako zentroa martxan jartzeko proiektua hasiko da, udalak 25.000 €-ko hasierako partida gorde duela horretarako.
  - e. Lehen mailako arreta honetan herriko elkarteek ere parte hartzen dute. Bestek beste Arraztalo (53.000 €), Agintzari (40.600 €) eta Agipad (10.000 €) lagunduko dira.
2. **Gizarte lankidetzaren eta garapenerako laguntzaren alorrean**, inguruko erakundeei laguntzak bideratuko zaizkie beraien lanarekin jarri dezaten: El Watan (6.000 €), Kilirikupe (5.000 €), Harri Beltza (6.000 €), Osasun Pastoral (550 €), Odol Emaileen Elkarte (600 €) eta Garabide (4.000 €), besteak beste.
3. **Jubilatuaren Elkarte** babesteko eta egoitza berriaren kudeaketa zehazteko egitasmoa. Behin-behineko egoitzaren mantentzeko eta bertan ekintzak egiteko 10.000 € eta 11.000 € bideratuko dira. Horrez gain, egoitza berriaren kudeaketa eredu definitzeko parte hartze prozesua martxan jartzeko 18.000 € gorde dira.
4. **Etkez etxeko zerbitzua**. Menpekotasunak dituzten herritarrei arreta emateko Etkez etxeko zerbitzuaren aurrekontua 729.809 €-koa izango da 2022an. Orain dela hiru urte zerbitzua egokitzeko moldaketak egin ziren eta zerbitzu hau hobetzen jarraitzeko apustua egin da.

Azkenik, aurretik aipatu den moduan, bazterkeriari aurre egitea eta zaintza sailaren erronka nagusiak izango dira hurrengo urtetan. Hori dela eta, gai hauen inguruan diagnostiko bat egiteko 40.000 € gorde dira.

## 6.11 Berdintasuna

2022an berdintasun politikak bultzatzeko 128.315,18 € izango dira. 2022an berdintasun ikuspegi udal sail ezberdinetan txertatzeko lanarekin jarraituko da.

Saileko ekintza nagusienak honakoak izango dira:

- Sentiberatze jarduerak egiteko 33.000 € gordeko dira.
- Udalean barne mailako formakuntza saioak egiteko 10.000 € egongo dira.
- Berdintasun planeko ekintzak gauzatzeko 3.000 € aurreikusi dira.

## 6.12 Kirola eta Gazteria

Kirol eta Gazteria Sailak 1.717.305,90 €-ko aurrekontua izango du 2022 urtean. Aurreko urtearekin alderatuz % 68 igo da aurrekontua, batez ere egingo diren inbertsio eraginez: Altzibarko frontoirako 172.799 € gorde dira eta Ugaldetxoko futbol zelairako 14.000 €. Gainera, kiroldegiaren esleipen berriarekin, bertan egin beharreko inbertsio guztiak udalak egingo ditu (orain arte enpresa kudeatzailearen eta udalaren artean egiten ziren). Bai eraikinaren mantenuarekin lotutakoak baita beste instalazio eta makineriarekin lotutakoak ere. Ondorioz, aurrez zegoen 25.000 €-ko partida 100.000 €-ra igo da.

Kiroldegiarekin jarraituz, esleipen berriaren kostea igoko da 347.912 € arte, zerbitzuan egingo diren hobekuntza eta bazkideen jaitsieraren ondorioz.

**Kirolaren ekintzen sustapenari dagokionez**, elkarteak babesteko **dirulaguntzak mantenduko** dira. Ohiko funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko 54.000 € gorde dira eta kirol probak antolatzeko 13.000 €. Elkarteekin Kirol kontseiluan adostutako irizpide taularen baitan banatuko dira dirulaguntzak eta beraiekin elkarlanean taula hau egokitzen jarraituko dugu.

**Gazteriari dagokionez**, partida nagusia Ludotekaren kudeaketa izango da. 141.000 € bideratuko dira horretarako. Horrez gain nerabeen arretarako zerbitzu berria martxan jarriko da 2022-2023 ikasturtean. Zerbitzu honek gaur egungo Kuadrilategi zerbitzu ordezkatzeko du eta Gazteria sailean 38.000 € aurreikusi dira.

## 7 Egoera ekonomikoa.

Aurrekontu Orokorra. Udaleko egoera ekonomikoa normala da, ohiko diru-sarrerak (17.481.458,00 €.-) ohiko gastu eta amortizazioei (14.984.535,92 €) gainditzen dituztelako, horrela gaindikin hauek inbertsio gastuak finantzatzeko bideratuz.

Estabilitate Lege berriari jarraituz sarreretako lehenengo 7 kapituluak gastuetako 7 kapituluak baino txikiagoak dira, hau da 264.360,00 €-ko defizita du, baina Oiartzungo Udalak, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzko 9/2020 Foru Dekretu-Arauaren arabera, 2021ean 1.102.710,00 €-ko defizita izateko baimena du.

## 8 Egoera finantzarioa.

Eskueran dauden errekurtsioen jariakortasun eta aldizkotasunak gastuen ordainketa puntuala onartzen du.

## **9 Orubearen Egoera**

Udal ondarea gaur egun indarrean dagoen kontabilitatean, 2009an onartutako Inbentarioari esker eguneratua ikus dezakegu.

## **10 Laborazio Irizpideak**

2022 ekitaldirako egin den Aurrekontu Proiektua 2021 urteko Aurrekontuaren exekuzioan informaziotik abiatuta egina izan da, era berean kontuan izan da etengabeko jarraipenaren betebeharrak, bai legeak ezarrita edo onartu diren betebeharren arabera, dena den, aurreko ekitaldiko etekinen arabera estimatu diren diru-sarrerak edo tarifa eta kuotan igoeraren ondorio bezala.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea  
ALKATEAK,